

@ piipilean

Soraluzeko Hamabostekaria 46. alea 2002ko apirilaren 5a



KZ gunea
Interneta guztion eskura



**Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean**



GOL, S.A. Industriak

Sagar Erreka, 19 45 PK

20590 SORALUZE

Tfnoa. 943 75 21 00 / <http://www.gol.es>

Pil bazkide txokoa

**PIL BAZKIDE
ZOZKETA**



ARGIAko Mahai Jokoa

Aurreko zozketako irabazlea:

**86. zenbakia: Moises Alberdi Egaña
(Iratxo goxo dendan jaso Pil kamiseta)**

**Bazkidiekin
berbetan**



Markel Albisua, Argoitz Ariznabarreta eta Unai Soraluze

Zegaittik egin zarete Pil-pileaneko bazkide?

Ba, aldizkarixari eta kultura elkartiari laguntzeko. Oso lan ona egiten dabelako herrixan gauza berrixak egiten eta giro pixkat sortzen.

Nagusixauak zaretenian badakazue elkartian parte hartzeko asmorik?

Bai, danok. Oin be inguruan ibiltzen gara eta noizian behin egiten dogu lanen bat edo beste. Aldizkarixa banatzen ibiltzen gara eta gustora ibiltziaz aparte, diru pixkat etarutzen dogu eta hola.

Ze eskatuko zontsake Pil-pileani egittek?

Gazte sail bat sortzeko, gaztiondako gauzak antolatzeko; irteerak mendira, karta lehiaketak eta beste mila gauza.

Plazer bat izan da.

Guretako bebai. Segi holaxe.



Eta zer egin?

UBANE MADERA

Lapurreta ugari izaten ari dira azkenaldian; bai Plazentzian baita inguruko herrietan ere. Neuri ere birritan lapurto didate, autoan; bata hemen, Plazentzian (gauez); eta bestea, Arrasaten (egun argiz). Lehenengo aldian, Udaltzaingoari jakinarazi nion eta ez nuen bestelako salaketarik egin. Baina, bigarren aldian, amorruren amorruez, Ertzaintzan ipini nuen salaketa. Handik pare bat edo hiru astera, Bergarako epaitegitik jakinarai zidaten, ez zituztenez lapurrak harripatu, kasua artxibatu zutela. Kito. Ez dago zereginik. Hori zioten. Ba primeran, aizu! Nire kasuan, irtenbidea erraza da: auto barruan ezer ere ez uztea. Etxebizitzetan ere, atea bi bueltarekin itxi eta kito. Baina, zer egin dezakete tabernari edo dendariak? Argi dago ezin dutela barruan dagoen guztia etxera eraman. Eta kristalen bat apurtuta barrura sartzen direnen kontra ere ezer gutxi egin dezakete; horren aurrean berdin da zeharo segurua den atea izatea, atea bi bueltarekin ixtea edo dena delakoa. Akaso alarma izanez gero, lapurreta eragotzi daiteke; baina, edozelan ere, lapurrek hanka egingo dute, eta gainera, hanka egin aurretik edozer apurtu dezakete. Arrasaten adibidez, denda baten lau bider sartu ei dira. Hortaz, nire galdera da: zer egin? Nik, behintzat, segurtasun eza sentitzen dut. Gure Euskal Herri honetan beste edozein lekutan baino polizia gehiago ei dago, mota guztietakoak. Eta, ustez, polizia herritarrek babesteko dago. Ba kasu honetan nik ez dut hori ikusten, ezta gutxiago ere. Ez dakit zein polizia motaren lana den horrelakoei aurre egitea. Behin zinegotzi batek esan zidan, Ertzaintzak beste lan batzuek dituela. Ba akaso bai, ni ez naiz hor sartuko. Baina, horrek zer esan nahi du, ez dela inor arduratzen lapurreta eta horrelakoekin? Edo ez direla behar beste arduratzen? Ba ez nago konforme. Uste dut, gure herrian, gauza batzuk ondo asko zaintzen direla, eta beste batzuei ez zaiela inolako garrantziarik ematen. Eta hori ez da zuzena. Are gutxiago ikusita gero eta lapurreta gehiago dagoela. Egun argiz ere sartu izan dira etxebizitzetara. Eta ikusita ez zaiela ezer gertatzen, gero eta handiagoak egingo dituzte. Zer egin? Ugazabak denda eta tabernetan geratu beharko dira lotan...?

Duela gutxira arte, herrian nengoenean, nik neuk ere autoa zabalik uzten nuen askotan. Gaur egun, etxe parean bi minuturako utzi behar badut ere, ate guztiak ixten ditut, badaezpada. Horrela segituz gero, zela ibiliko gara hamar urte barru?

Telegrapak

Hau da lapurreta pilia!.STOP. martxa honetan kantzontziluak be harripau bihar doskuez. STOP. zer egin geinke?.STOP. geu be lapurretan hasi?.STOP. emoten dau kontajiosua dala eta larri ibili!. STOP. Egixa esateko, Aitor Prieton txistiak bildur gehixao emoten dabe.STOP. holako asko etara ezkerro, laster itxiko doskue errebistia. STOP. ai, ai, ai!. STOP. honek funtzionarihuok!. STOP. Korrika apostuan, azkenian, Txakarra galtzaile.STOP. Etxebarri tripa-haundik astopistia hartu eta aurrera.STOP. Txakarra Soraluzekeo historixan geratuko da zure izena. STOP. Aberri Egunan inguruan hobe ezer ez esatia. STOP. Aste Santuko ekitaldixak alde edarreko sentimientua izan dabe. STOP. gazte jentia nora begira dao baina?. STOP. KZ-gunian be, jubilauak eukiko ei dabe lehentasuna. STOP. "Zeinek esan eh, 75 urtekin Internetian ibili bihar genduanik. STOP. zenbat buelta emoten dittuan munduak eh!. STOP. (egunian bat!). STOP. azian geratu ezkerro, danak jakingo dabe Internetian ibilzen eta nik ez. STOP. banoia izena emotera derrepente!".STOP. Amen. STOP. Ondo izan.



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarte
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Sorluze.
Telefona 943 75 13 04

Zuzendaria: Gurutze Ariznabarreta

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Enara Agirre, Eguzkine Aldazabal, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Jon Oregi, Oier Oregi, Eduardo Pombar, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.

Publizitatea: Jon Oregi eta Jon Basauri
(943751304 tel.)

Banaketa: Pil-pilean **Ekoizpena:** 1.850 ale
Inprimategia: Gertu Koop. **Azala:** Aitor Madrid
Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid
I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORLUZEKO
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

index - Microsoft Internet Explorer

Archivo Edición Ver Escritores Herramientas Ayuda

Atrás Adelante Detener Actualizar Inicio

Dirección http://www.soraluze.net/

Non zer?

Ataixa.....	3
Zerbitzuak.....	4
Iritzia.....	5
Zer berri?.....	6 / 7
Erreportaia.....	8 / 9
Kirola.....	10
Sutondoaren epelean.....	11
Kultura.....	12
Kale kantalian.....	13
Kontuak kontu.....	14

SORALUZE

PLACENCIA

DE LAS ARMAS

Sartu Entrar

KZGuneak apirilaren 5ean zabalduko ditu ateak.

udala@soraluze.net

Internet

Zorion agurrak



Iker Etxabe Madrid
Zorionak txikito!!!
2002 - 4 - 11
Txapelpunk, ia noiz
formaltzen zaran...
Muxu handi bat
Etxekuen partez



Ixone Iñarra
Zorionak eta muxu
handi bat!!!
2002 - 3 - 20
Mari sorgin
Etxekuen partez.



Lucía Reglero eta Marisa De la Rosa
Zorionak!!
2002 - 4 - 6
Besarkada handi bat bixoi!!!
Rosiren eta Ainhoaren partez.



Iñaki Soraluze
Zorionak!!
02 - 3 - 24
Rubixo nahiz more-
no, Alemanian nahiz
Anadaluzian beti
lagunen lagun.
Etxekuak



Loli Perez De Heredia
2.002-3-22
Muxu handi bat segi
betiko txisparekin.
Zure lagunen partez!



Es-“tren” Rubio
Zorionak Bad Girl!!!!
Jarraitu zaren modokua
izaten.Nora joan behar
gara zeezer “ pikatzera”?
Lagun eta zure poltsaren
hartzaren partez.



Ane Ugalde
2002-03-21 19 urte
Holako lora ederrak
Udaberrixan baka-
rrik jaxotzen dira!
Kuadrilakoak

Gloribel Oregi
Zorionak!!!
Ponposiari: “Ardau
onan moduan, urtie-
kin mejorasen.”
Asteburuko zuri-
tuen partez.

Gorka Ojea Zabala
2.002-3-29urte
Muxu handi bat eta
txintxuago izan eee!
Etxekuak

Agenda

Apirilan 14an

12:00etan

Musika Eskolian Udaberriko kontzer-
tua Plaza Zaharrian

LURDESERA IRTEERA

Maiatzaren 24-27 bitartian 943 75 13
70-943 75 13 90 telefonoetan.

hildakuak

Aitor Esnaola Cifuentes
Sandra Hidalgo Exposito
Sandra Etxezarreta Mendikute

jaiotakuak

Maria Cruz Imaz Alustiza
Jose Maria Zubiaurre Lete
Jabier Azula Zezeaga
Ignazio Orbea Arrizabalaga
Luis Maria Ansola Andoaga

Gutunak

PP-ko zinegotziari:

Uste dut gustora geldituko zinela,aurrekontuetako zure proposamenekin,ez duzu arrazoirik falta, bejondeizula.Puntuz puntu azalduko dizut nire adostasuna.

Dirudienez “Monografia histórica” bat egin nahi duzu,baina ez zara konturatu dagoeneko badagoela bat eginda. Ramiro Larrañagak egin zuen eta nire eritzi xumean ondo dagoela uste dut, beste bat egitea ez legoke gaizki, alderantziz oso ideia ona iruditzen zait,beti ere edizio berri hau gure herriko hizkuntzan idaztea pentsatu baduzu,euskaraz alegia.

Auzoetako jaiak diru gehiagoz hornitzea ez legoke batere gaizki, oso jai bereziak izanda ere beti dago ondo talde

famatuak ekartzea eta hontarako danok dakigunez diru dextente behar da.

Hirugarren mundua dagoen egoeran nola ez hau diruz laguntzea,hontan ere ideia oso polita izan duzu.

Afrika partera pixkat,Hego Ameriketara beste apur bat... Honela gure buruekin gustorago sentituko gara eta hori beti dator ondo.

Nire adostasuna adierazi ondoren ezadostasun bat ere adierazi beharrea aurkitzen naiz. Oso ondo daude proposamen guztiak, baina euskararen aurka duzun jarrera hori ezin ulertuan nago. Zure proposamen berri horiek aurrera eramateko Pil-pilean dirurik gabe uztea amesten duzu eta hori gutxi balitz AE-Kri ere jasotzen dituen diru apurretik parte bat kentzea eskatzen duzu.

Hurrengo urterako zure aurrekontuetako proposamenak aurtengoak bezain onak izango direlakoan nago,baina eskari bat egin gabe ezin utzi idazteari eta mesedez hurrengo urteetarako horren ideia apartak burura etorritakoan euskararen diru laguntzak pakean utzi edo diru gehiagoz hornitzea proposatu.

Besterik gabe agur bero bat Soraluzeke euskaltzale baten partez.

Gorka Salaberria
“Txakarra”

Errata

Juan zan aleko gutunetako bat, “Alkatearen Mutazioak” izena zeukana,Batasunako Zigoziak sinatuta zetorren. Barkatu akatsa.

Pil-pilean



SAN ANDRES
Iturgintza

Iturgintza, Gasa, eta Berogailuak
Sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea
Tfnoa 943 75 16 46



MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren,10
Telefonoa 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORALUZE

Zer irizten dotsazu?**Lapurretak.
Konfiantza larregi daukagu? Zer egin leike?****Jon Agirre**
22 urte Langilia

Nere ustez konfiantza larregi daukagu, baina oin arte ez jata ezebe pasau ta nik hola jarraitu bihar dot.

**Margarita Ibargoiien**
44 urte Etxekoandria

Nere ustez ez dago seguridade haundirik, egunian egunian tokiren baten lapurretan egitten dabe eta. Bigilantzia haundixagua jarri biharko litzake.

**Iker Uzin**
19 urte Ikaslia

Oinarte ezebe pasau ez danez, normala da konfiantzia eukitzia. Hemendik aurrera seguridade gehixau jarri biharko litzake tabernetan eta.

**Clari Cifuentes**
42 urte Almacenistia

Lapurretak izan arte ez da bape seguridaderik egon eta oso konfiatuta ibili gara. Ertzainak holako gauzak gehixago bigilatu biharkolittuzkie.

**Angel Aldazabal**
54 urte Teknikua

Nere ustez oinarte ez da seguridade askorik egon. Oin kanpotik jende barrixa etorri da eta ez dakit ba horregaittik izango dan ala ez. Hau konpontzeko ertzainak jarri edo neurriren bat hartu biharko leukie herrixa gehixago zaintzeko.

**Maria Pilar Agirrebeña**
69 urte Etxekoandria

Nere ustez seguridade faltia dago eta ertzainak edo udaltzainak gehixago zaindu biharko leukie herrixa.

Ugaitz Catalan eta
Enara Agirre

Javier Alonso Zelaieta
Hortz klinika



Mediku estomatologoa
434 zenb. kol.

Atxuri, 1 - 1. eskuma
Tfnoa 943 75 16 13



ION MURGIZU
Pinturak

Empapelatuak
Margoketa orokorrean
eta Estukoak

Telef. 943 75 13 24
Eskuko telef. 652 777 030
Ezoziko etorbidea 24 2 behea
20590 SORALUZE

Aste Santua fedearen garaia



Kristauendako garai berezia izaten da Aste Santua eta hargatik antolatzen ditu urtero herriko Parrokiak ekitaldi erlijioso ugari garai honetan. Ostegun Santu, Ostiral Santu, Larunbat Santu eta Berpizkunde Egunean egin ziren elizkizun eta ekitaldi erlijiosoak. Ostiral goizean esaterako, 50 bat lagunek, Gurutz-Bidea egin zuten Plaza Barritik Ezoziko plazaraino. Gazteen artean arrakasta handirik ez duen arren, adinekoek gogotsu eusten diete urtez urte, kristau fedearen adierazpenen hauei..

Aberri Eguna banatuta

Aurten ere alderdi abertzaleek baikoitzak bere aldetik antolatu zituzten Aberri Eguneko ekitaldiak, EAJ-k Bilbon, EA-k Gernikan eta Batasunak Donibane Lohitzunen. Soraluzen Udaltzako Batzorde Eragileak deitutako ekitaldia egin zen. Bestalde herriko 20 renbat gaztek, SEGIk antolatuta Elorrixon egin zen Gazte Topagunean ospatu zuten Aberri Eguna. Adierazi zigutenez, Guardia Zibilak kontrol gogorrak jarri zituen Elorrixoko sarreretan.



Juan Priederen hilketaren gaitzezpena



Martxoaren 21ian, Juan Priede Orioko zinegotzi sozialistaren hilketaren gaitzezteko kontzentrazioa egin zen Plaza Barrixan. “Bakea da bidea” lemapean, 40 Soraluzetar inguru elkartu ziren Gesto por la Paz Bakearen Aldeko Koordinakundeak egindako deialdira. Bildu zirenek ETAk daraman indarkeri bidea gaitzetsi eta bakearen aldeko aldarrikapen bat egitea izan zuten helburu.

Batasunaren Bake Proposamena



Martxoaren 21ean eta “eskubide guztiak euskal herritar oroentzat Euskal herri osoan” lelopean, Batasunak “koponbide demokratikorako proposamena” aurkezteko hitzaldi bat eman zuen Polikiroldegiko Erakusketa Aretoan. Bakearen eraikuntza, proiektu politikoetatik bereizi behar dela esan zuen, horrela, Batasunak bere proiektu politikoaren inposaketari uko egin diola eta egingo diola esan ostean, estatu espainiarra eta frantziarrari ere, euren proiektu politikoaren inposaketari uko egiteko gonbita luzatzen zietela adierazi zuten. Bukatzeko, Autodeterminazio Eskubidearen aitortzak zer ahalbideratuko lukeen azaldu zuten. Lehendabizi, bakerako eszenatokia, Euskal Herriak bi Estatuekin adostutako Akordio Politikoak gatazkari behin betikoz konponbidea emango liokeelarik. Eta eszenatoki honek, indarkeria mota guztien desagertzea; “presuak askatzia eta iheslarixak Euskal Herri-ratzia eta etorkizuneko belaunaldixeri justizian, askatasunian eta bakian oinarritutako Euskal Herrixa lagatzia ekarriko leukiena”.

Kasaresi omenaldia

Joan zen martxoaren 24an, Frantziaren errefuxiatu zegoela orain 22 urte hil zen Luis Kasaresi omenaldia egin zioten mendi gainean bere ezagun eta senitartekoek. Dantzariak eta txistulariak ere parte hartu zuten ekitaldian eta azkenean idatzi bat irakurri zuten bere oroimenez. Honetaz gainera, Kasaresi omeneko X. Mus Txapelketa ere jokatu zuten Arranoan eta Argarate anaiak lortu zuten txapela.

Autoarekin harrapatuta


Joan zen martxoaren 14an, auto batek oinezko bat harrapatu zuen Etxaburueta kalean. Udaltzaingoak aditzera eman digunez, “gidarixa edanda zoian susmuak izan genduzen eta Ertzantzari deitu zotsagun”. Zauritua Mendaroko Hospitalera eraman zuten berehala eta zorionez, zauri arinak besterik ez zituen jasan.

Lapurretak ugaritu dira

Azken hilebete honetan lapurreta asko izan dira herrian. Osasun Etxean eta Kakuaneko supermerkatuan sartzeaz gain, Bolia, Arrano eta Txoko tabernetan ere sartu dira. Enpresak ere ez dira libratu; Galvanizados Arrate, Viuda de Azkarate eta beste lau enpresetan ere lapurretak izan dira. Hauetako enpresa batzuk gainera, epaitegietara jotzeko asmoa azaldu dute. Ertzantzaren esku daude ikerketa lanak eta bide onetik omen doaz.

Albesako zubia egiteko lanak

Olea eta Errekalde kaleen arteko zubia egiteko proiektua eta beronen 1.fasea egiten hasteko lehiaketarako deialdia ere onartua dago. Orain, konbenio bat sinatuko da Pascual Churruca eta Anastasio Mendicute S.A.ren artean, Gipuzkoako Foru Aldundiarena den Albesako eraikina erosi eta botatzeko lanak egin ahal izateko. Konbenio honen arabera, lantegia osatzen duten etxebizitzetarako 257m² eta industria eraikinaren 722m²ak banatuko egingo dira; 344m² Anastasio Mendicute S.A.ren lantegiaren handitzerako eta gainontzekoa Pascual Churruca eta Udalarendako izango da, %eko51 eta 49ko jabetza mailarekin.



Zubia egiteko presa beheeratu eta Ola aldeko gainezkabidea beteko dira. Zubiak alde bietarako norabidea izango du eta oinezkoendako espaloia ere bai. Guzti hau, herriaren mendebaldetik egingen ari den moduan, ekialdetik ere sarre- ra bat egiteko. Aurrerago egingo dira Santa Ana kalearen hobekuntzak eta trenbidearekiko lotura-bide berria.

Saciako lanen 2. Fasea



Saziako lantegia botatzeko lanak ia amaitzear dauden honetan, apirilaren lehen asteetan 2. Faseari ekitea aurrirakusten da. 2. Fase honetako lehenengo lana Ezozi Bidetik Arraikuarako bidean galipota botzea izango da. Lan hauek egitearekin batera, Zeletako azken etxebizitzetatik gorako aldapan era botako

da galipota.

Saziako etxebizitzetarako zerrendak 2 urte barru

Aurrikuspenen arabera, 2.003. urtean Sazia inguruan egin nahi denaren Urbanizazio proiektuak prestatuko dira, 2.005.urtean eraikitzeko lanak hasiko dira eta 2.007.urtean amaituta egongo dira babes ofizialeko etxebizitzak. 50 Etxebizitza inguru egitea aurrirakusten da, 10-12 miloi inguruko prezioa izango dutenak. Udaleko aparejadorearen hitzetan, "etxebizitza hauetako bat erosteko izena emateko zerrendak ez dira bi urte barrurarte zabalduko" eta beraz, jendeak Etxebide erakundean egingen diharduen eskaera eta gestioek ez omen dute inongo baliorik.

Santa Anako zakarrontziak

Teknikoek egindako azterketek lur azpiko zakarrontziak egiteko lanen eta inguruko hormaren zartatzearen artean erlazio zuzenik ez dagoela baieztatu ostean, Udalak aurrera jarraituko du Santa Ana kaleko lur azpiko zakarrontziak egiteko lanekin. Hori bai, orainartean erabilitako blokeak kendu eta azkenean hormigoi armatuz egingo dira lur azpiko zakarrontziak.

Ezozin bolatokia hil honetan



Ezoziko parkeko bolatokia egiteko lanak hil honetan bertan hasiko dira. Aurrikuspenen arabera, bolatokia, argi eta guzti, amaituta izango da hil honen amaierarako. Dagoeneko zuhaitzak eta loreak ere landatu dituzte.

Argirik barik Ezozi bidean

Martxoaren 16tik 20ra bitartean Ezozi Bideko argiak itzalita egon ziren. Udaletik jakinarazi digute, farola batean izandako konexio akats batena izan zela errua eta tartean jai egunak izan zirelako luzatu zirela konponketa lanak.

Egoitz Unamuno



BELARRAK
LORADENDA ETA BELARDENDA
EROSKETAK ETXERA DARAMATZAGU



Santa Ana, 2 behea
Tel.: 943 75 30 11
Eskukoa telfnoa: 646 43 90 40
20.590 SORALUZE



HNOS. BENITO ANAIK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

KZ gunea Interneta guztion eskura

Eusko Jaurlaritzak Euskadi Informazioaren Gizartean plana jarri du martxan. Plan honen barruan daude KZGuneak. Baltegiatiko Gela Urdinean egongo da Soraluzeko KZGunea eta apirilaren 5ean zabalduko ditu ateak. Goizeko 9:00etatik eguerdiko 13:00era eta arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara bitartean egongo da zabalik eta bakoitzak, ondoen datorkion ordua aukeratu ahal izango du ikastaroa egiteko.

Baztertu ezinako aukera

18 Urteko gorako edozein pertsona izango du KZGunean matrikulatzeko aukera baina jubilatuak eta etxekoandreak izango dute lehentasuna eta hain zuzen, hauxe izango da KZGunearen helbururik nagusia; Internet ezagutzeko arazo gehien izan dezakeen jendea, Internet ezagutzeko aukera eskeintzea. Pileanekook uste dugu, garrantzitsua dela Soraluzetar guztiak Internet ezagutzeak duen garrantziaz konturatzea eta horregaitik erabaki dugu oraingoan Internetaren apologia ulerterraz bat egitea. Internet hemen dago, Soraluzen, Baltegiatiko Gela Urdinean, baina baita albo-koaren etxean ere! eta zu, lo harrapatu behar zaitu?

Zer da Internet benetan?

Ez da komeni megekin, sareekin, txipekin eta ez dakit zenbat hitz arrarorekin parekatzea. Internet eguneroko tresna da. Komunikabide bat telefonoaren eta egunkariaren moduan, baina askoz aukera handiagoak eskeintzen dizkiguna.

Internet ez da konplikatu eta nahasia. Internet gure gauza da, erreza, eguneroko zereginetan lagunduko diguna



KZGunea Baltegiatiko Gela Urdinean egongo da. Animatu eta hurbildu!

eta erreala. Internetak milaka aukera eskaintzen ditu. Eduki pila bat dago (euskaraz ere gero eta gehiago) eta gutxien uste duenak ere aurkituko du zerbait in-

teresgarri egiten zaion zerbait. Ez dago sareekin kanpo gelditzerik. Ameraun hau oso-oso handia da, baina ez digu inporta behar sare horretan jausteak, gure onurarako izango da eta, eta inoren kalterako ez. Etorkizuna egiten dihardugu etorkizuna heltzeko itxaroten egon beharrean, ze itxaroten dagoenak eginda datorrena jasoko du eta guri tokatzen zaigu bertsio originala egitea, guk guretako egokitua. Ereindakoa jasoko digu.

KZGUNEAN: INTERNET EZAGUTZEKO BIDEA

KZ Gunean ezagutza maila guztietako jendearendako ikastaroak eskainiko dira. Noizik behin Internet erabiltzen duen jendeak bezala, esku artean sekula xagu bat izan ez duenak ere izango du Interneten berri jasotzeko aukera. Horren adierazle da ikastaroak ematerako orduan egingo den mailaketa:

- 1.engo maila: Ezagutu Internet
2. maila: Internet erabili
3. maila: Sakontzen

Ez galdu aukera, zoaz KZGunerera eta eman izena.

Internet Jubilatuendako

Ez bakarrik jubilatuendako, baina baita jubilatuendako ere. Soraluzeko 72 urteko gizon bat egunero konektatzen da sarera ordu erdiz, eta zer egiteko? Ba Diario Vasco irakurtzeko ordenagailutik. Dena den, Egunkaria, Gara, El pais... edozein irakurri dezake, denak prezio

ITUR iturgintza

Iturgintza, Gasa Berogailuak Sukaldeak eta Bañuak




Santa Ana, 20 Behea
Tlfonoa: 943 75 12 41
Sakeleko tlfonoa: 639 17 96 96

Juan Mari Arraindegia

Eguneroko arraina eta konjelatuak

Merkatu Plaza
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69





Ugaraxo



2.002ko apirilaren 5a. 7. alea Plaentxi H. I. eta Pil-pilean Aldizkarixa elkarlanian.
Aldizkari honek udalaren dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko



Deba Barrena ezagutzen



Lan honen egileak.



Lehen Hezkuntzakoak Debako portuak ateratako argazki batean.

Ingurunen gure eskualdea landu dugunez, martxoaren 1ean irteera bat egin genuen Deba barrena ezagutzeko. Joan zen urtean Deba goiena ezagutu genuen Lenitz Gatzagatik Bergararaino.

Irteera hau gelan aztertu ditugun guztia ikusteko egin dugu: herriak, errekatxoak, kaia, hondartza, garraioak e.a.

Aste osoan eguraldiaren berri ikusten egon ginen, ostiral horretan eguraldi ona egin behar zuen ala ez jakiteko, eta azkenean goizean ez zuen hain ona egin baina arratsaldean eguzkia ikusi genuen.

Horrela Soraluzen goizeko 9,30 etan irten eta

Elgoibarrera abiatu ginen. Beste urteetan Maltzagan gelditzen ginen Ego ibaiak Deba ibaiarekin topo egiten duen tokia ikusteko, baina obrak direla eta aurten zuzenean Elgoibarrera joan ginen. Hemen San Lorenzo eta San Migel errekatxoak ikusi genituen. Gero Mendaron, herria eta Kilimon erreka ikusi genuen. Ondoren mutrikuko kaia ezagutu eta Debara joan ginen, hemen Deba ibaia nola itsasoratzen den (Kantauri itsasoa) eta herria ikusi genituen.

Bazkaldu, jolastu eta ondoren trenez itzuli ginen Elgoibarrera, eta han gure autobusa zain geneukan Soraluzera itzultzeko.

Berriak-Berriak-Berriak-Berriak-Berriak

Urtarrileko berriak



Lanaren egileak zintzo zintzo argazkia ateratzeko zai.

Urtarrilaren 1ean urteberri bat hasi genuen. 2002. Urtea. Eta diru berria eman ziguten, euroak. Hasieran ez genekien zenbat balio zuten eta oso arraroak ziren baina orain ohitu gara.

Urtarrilaren 6an erregeak etorri ziren eta opari asko ekarri ziguten. Asko gustatu zitzaizkigun opariak.

Urtarrilaren 8an ikastolan hasi ginen berriz. Ikastolan oso ondo pasatzen dugu. Oso erreza zela uste genuen eta horrela da.

Urtarrilaren 20an Donostiako danborrada egon zen. Telebistan ikusi genuen. Gu haur hezkuntzakoak ikustera joan ginen.

Urtarrilaren azkenengo astean neguko olinpiadak ospatu genituen. Urdinek irabazi zuten.

Oharra:

Urtarrilaren 16an Unai Aioraren urtebetetzea izan zen.

Otsaileko berriak

Otsailaren 7an ikastolan ihauteriak ospatu genituen. Arratsaldean 3,30tan dantza eta txokolatada eduki genuen. Maila bakoitza mozzorro batekin mozzorrotu ginan.

Otsailaren 11an, 12an eta 13an ez genuen ikastolarik izan eta ihauteriak ospatu genituen herrian. Kanean gauza asko egon ziren eta oso ondo pasa genuen.

Gutxi gelditzen da udaberria heltzeko. Udaberrian lore politikak hazten dira eta eguna luzeagoa da.

Oharrak:

Otsailaren 5ean Joseba iñurrietaren urtebetetzea izan zen.

Otsailaren 18an Joseba Morenoren urtebetetzea izan zen.

Martxoko berriak

Martxoaren 8an emakume langilearen eguna izan zen. Guk egun hartan gelan marrazkiak egin genituen emakumeak eta gizonak lanean eta hormirudi handi handi batean pegatu genituen.

Martxoaren 10ean Debako gizon bat hil zen San Andresen bihotzekoak emanda. Mendi irteera batean gertatu zen.

Martxoaren 19an aitaren eguna izan zen. Eta Jose guztien eguna. Aita batzuk Jose deitzen dira eta egun bereziagoa izan zen beraiantzat.

Martxoaren 21ean udaberria hasi zen. Udaberrian lore politikak daude eta egunak luzeagoak dira.

Martxoaren 22an oporrak hartu genituen. Guri asko gustatzen zaizkigu oporrak, ez garelako hain goiz esnatu behar eta ez dugulako lanik egiten.

Oharrak:

Martxoaren 9an Ivan Mendezen urtebetetzea izan zen.

Martxoaren 15ean Ainhoa Gallastegiren urtebetetzea izan zen.

Berriak-Berriak-Berriak-Berriak-Berriak

Jaurti

SORALUZeko INSTITUTUKO GAZTIEN ALDIZKARIXA

Soraluzeko Institutua eta Pil Pilean aldizkaria elkarlanean

2.001eko apirila 3. alea



2.002ko apirilaren 5a. 3. alea Plaentxi H. I. eta Pil-pilean aldizkarixa elkarlanian
Aldizkari honek udalaren dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko

Eskolako txapelketak

Duela hilabete terdi gutxi-gora behera Soraluzeko B.H.I.n eskolako ikasle eta irakasleentzat hainbat txapelketa hasi ziren beste urtebetez. Hauek bertako Euskara Batzordeak antolatu zituen.

Hauek dira antolatutako txapelketak:

Pala txapelketa, frontenis txapelketa, tute txapelketa, mus txapelketa, pin-pon txapelketa eta esku pilota txapelketa.

Oraingoz ez dira semifinalak jokatu. Finalak kurtso bukaeran jokatuko dira eta saria eskolako txartel bana izango da eskolarako nahi duten materiala erosteko.



Ezkerretara, tarta lehiaketakoak (infiltratu bat barne) eta azpian, saskibalo lehiaketako irabazleak.



Goian Pin Pon lehiaketako irabazle eta irabazle ordeak eta eskumatara, palako irabazleak.



SORALUZEKO HIRI-PAISAIA

Pil-pilean herri aldizkariak parte hartzera zirikatuta, institutuko DBH 4. mailako ikasleok parada hau aprobetxatu dugu Soraluzeke hiri-paisaiari buruz hausnarketa batzuk egiteko irakurleak aurrean duen artikuluko moduko hau idatziz; erabili ditugun tresnak, gelako testu-liburua eta materiala, herriko web orria ([www. Soraluze.net](http://www.Soraluze.net)) eta Euskal Estatistika Institutuarena (www. Eustat. es) izan dira.

Geografiaren ildo jarraituz Soraluze hiri deitzea ez da harritzekoa nolakotasun irizpideak eta ez biztanlego kopuru soila kontutan hartuz, populaketa eta eraikinak kontzentratuak baitira eta enpleguan % 6a bakarrik aritzen delako lehen sektorean (nekezaritzan) beste lanbide guztiak bigarren eta hirugarren sektorean jarduten duten bitartean. (Eustat, 1996).

Hiriaren betekizunek badute zeresanik arlo honetan. Herriaren historian zehar ekonomi bigarren sektoreak (industriak) garrantzi handia izan du, XX. mendean areagotuz industrializazioa zela-eta; ondorioz tailerrak herrian sakabanatuta jarraitu zuten, herriak duen beste betekizun garrantzitsu bati lotuta, hau da bizitegi izateari, etxe azpietan eta etxe tartetan kokatu baitziren tailerrak: nahiz eta egun industrialdeak garatuta egon, Soraluze mantentzen du oraindik ere ezaugarria hau - Eibarri deitu dioeten bezala, hiri-tailerra dirudi-. Honen arrazoia jakina, gure kokagunean naturak sortutako espazio lau txikian datza.

XIV. mendean hiribildua sortu zenetik, herriak bere inguruko erliebearen eragozpena izan duenez bere lehen jokaera, Deba ibaiaren biguralak hartzea izan zen. Hiriak izan zuen lehen paisaia hiribildu



batena zen, hau da, herrixka harresitua non etxalde artean elizaren eraikina nabarmenduko zen. Hurrengo urratsa harresiz kanpo etxalde berriak egitea izan zen -arrabalak- ibaia ardatzat hartuz eta herriari oraindik ere duen plano linealaren itxura emanez. Paisaia aldaketa prozesu honen barruan, hirugarren urrats garrantzitsua XX. mendean ekarri zuen biztanlego hazkuntza nabariarekin.

XVII. mendean iritsi zen Soraluze 1000 biztanle izatera, 1900. urtean 2108 zituen, 1930ean 3007 biztanlera iritsi zen arren, hamarkada horretako gerrak eta gerraosteak 2108 lagunera jeitsierazi zuen kopurua, baina aurrerantzean biziberritu zen, 1970an 5639 biztanle baitzeuden industriaren loraldia zela eta. Baina ondorengo hamarkadek beherrantzko joera hartu zuten: jaiotza-kontrola zabaldu zen neurrian eta ekonomia krisiek etorkinen iritsiera gelditu zuten heinean, 2001ean 4188 zen herriko biztanle kopurua.

Azken mendean ekarritako ekonomia eta demografia aldaketok izan zuten isla hiri- paisaian, industrialdeak ez ezik hirigunean ere egun zirelako tailerrak eta baita

etxe berriak ere; oraingoan maldan gora egin behar izan ziren besterik ezean. Herriak zuen industria metaletan oinarritua zenez, (egun hogeit enpresak dihardute makinagintzan eta metalurgian) metalgintzak berekin daraman narriadura, paisaiaren elementu nabarian bihurtu zen.

Arestian esan dugunez, aldaketak atean ditugu. Adibidez "Sacia" lantegiak hartzen zuen orubean etxebizitza berriak jasotzen dituztenean hiri-paisaiaren zati nabarmen bat aldatuko da, eremu hau herrian hobeto integratuko delako eta industri eraikinek zuten narriadura desagertuko delako. XXI. mendean betekizunen espazio

aldaketa dakarkigula dirudi, industrialdeetan kokatuz lantegiak eta hirigunean bizitegi eta zerbitzu betekizunak eskainiz.

Baina XX. mendean beste elementu garrantzitsu bat ere ekarri zigun, gizakiaren bizimodua asko aldatu zuena eta nola ez hirigintza bera ere: automobila. Ibilgailu honen ugaltzeak herriak bizkarrean daraman saihebidia sorrarazi zuen 1985ean, paisaian erreferentzi nabarmena jarritz; honela hiriguneko trafikoa arindu zen arren, automobil eta osterantzeko ibilgailu guztiek leku zabalak eskatzen dituzte aparkatzeko edota gordetzeko. 1998ko datuen arabera herrian 1574 automobil eta 266 kamioi eta furgoneta zeuden.

Konklusioz, herrian ikusten ditugun aldaketak prozesu baten emaitzak direla konturatu gara, garai bakoitzeko egoerak (ekonomiak, aginte publikoen ekimenak, teknologiak...) eragiten duena; historiaren ikuspegitik hiri-paisaia etengabe aldatzen duena, gorabehera handiekin, motelaldiekin ere bai, eta beste batzutan, -azken aldi honetan bezala-, izaugarritzko dinamismoarekin... beti etorkizun hobeago baten bila.

Hizkuntzak eta Euskara

Munduan dauden hizkuntzen erdiak gal daitezke datozen urteotan, 3000 inguru.

Europa: 50 hizkuntza daude mehatxupean. Errusia eta Eskandinaviar herrietan mintzatzeko diren laponiarrek hizkuntzak desagertzeko zorian daude. Frantzia 14 inguru daude galtzeko arrisku bizian, tartean euskara.

Asia eta Ozeania: Txineraren presioa izugarria da Asian eta hori dela eta hizkuntza asko dago galtzeko arriskuan. Himalaia eta Pamir mendietan ere hizkuntzak galtzen doaz. Australiak 400 hizkuntza propio zituen orain dela gutxirarte baina hizkuntza kopuruak behera egin du nabarmen azken urteotan.

Afrika: Hizkuntza mailan gutxien ezagutzen den kontinentea da, 1400 inguru daude eta hauetatik 250 mehatxupean. Beste 500-600 indarra galtzen ari dira.

Amerika: Ingelesaren eta frantsesaren indarra dela eta, hizkuntzak galtzen ari dira Ipar Amerikan. Gauza bera gertatzen da hegoaldean gaztelania eta portugalesarekin. Estatu batuetan 150 hizkuntza daude gutxi gorabehera eta hauetako gehienak gal zorian daude. Hego Amerikan berriz, 375 hizkuntzatatik asko eta asko galtzeko arrisku bizian daude.

Euskara desagertzeko arriskuan dago bere lurraldearen hedadura osoan Unesco-k egindako ikerketen arabera. Arrisku honetan bi maila bereizten ditu: Hego Euskal Herrian euskara desagertzeko dagoen arriskua eta Ipar Euskal Herria berriz, arrisku bizian azaltzen zaigu.

Munduan 6000 hizkuntza daude gutxi gorabehera eta hauetatik 3000 desagertzeko arriskuan, tartean euskara. Ipar Euskal Herrian 16 eta 24 urte bitarteko gazteen %11k bakarrik daki euskaraz, Nafarroan ere egoera berbera azaltzen zaigu. Hegoaldean berriz, egoera zertxobait hobea da eta gazteen %33k daki euskaraz.

Frantziako hizkuntza gutxitu guztiak desagertzeko arrisku bizian daude, Espainian oster, katalana da arrisku horretatik kanpo geratzen den bakarra.

Euskararen erabilpena oso urria da Euskal Herrian. Gaur egun euskara ez da garrantzitsua edo hori sinetsi arazi nahi digute eta hori ez da batere errespetagarria. Jokaera hori amaizeko garaia heldu dela deritzogu. Esan beharra dago euskara orain dela 30-40 urte baino osasuntsuago dagoela batez ere kultur munduan murgiltzeko, baina hizkuntzaren normalizazioa eta gai

horren inguruan egin behar diren ahaleginak ez dira nahikoak. Gure ustez, Euskaldun guztiak euskararen erabilpena areagotu beharko lukete atzerriko hizkuntzak bigarren maila batean utzita. Gaur egun ez dakienak ez duelako nahi da.

Hizkuntza bat hainbat arrazoi direla medio gal daiteke: hiztunak sakanbanatzen direlako, hizkuntz komunitate bat beste komunitate agresiboago edo ekonomikoki indartsuago batekin harremanetan jartzen delako, eta ondorioz, atzerriko hizkuntzak ikasten da. Azkenik, komunitate batek beste bat zapaltzen duelako hango aberastasunak baliatzeko. Arrazoi nagusi hauek azaltzen dira hizkuntza bat desagertzeko den orduan. Euskara bizirik mantentzea denen eskuetan dago.



Ander Elizburu / Ikerne Laskurain

EZ DA HAIN FAZILA

Institutuko
Euskara Batzordea

Erdarakada

Istorio/ Historio:

Istorio hitzaren sinonimoak dira honako hauek: kontakizuna, pasadizo, ipuina, gertaera...

Kontuz, eta ez nahastu historia hitzarekin.

Egoki esanda horrela da: Oso istorio xebreak kontatzen ditu beti/ Euskal literaturaren historia XVI. mendean hasi zen.

Bota:

Azkenaldian gehiegitxo erabiltzen da, besteak beste: senargia bota, siesta bota, kargutik bota dute. Nork ez du horrelakorik noizbait entzun? Horiek ordez, egokiagoak dira hauek: senargia egin, siesta egin, kargutik kendu dute.

Akabo zalantzak!

Urtebetetze eta zorionak:

Dena delakoaren urtebetetzea dela esan ordez, aspaldi honetan, zorionak direla esan ohi da, behin baino gehiagotan.

Esate baterako, entzungo zenituzten inoiz " Domekan Izaroren zorionak ospatu behar ditugu" eta antzekoak.

Baina, " Domekan Izaroren zorionak" ospatu esan ordez, Izaroren urtebetetzea edo eguna ospatuko dugula esan behar da.

Internetik badakazue? eta zetan erabiltzen dozue?

Julen Mendikute
14 urte

Bai erabiltzen dot. Informaziñua bilatzeko eta holako gauzarako gehixenbat. Musikia jeisteko eta hola. Takolo Pirritx eta Porrotxen azkenengo diskua handik bajatu neban.



Josune Egaña
13 urte

Guk badakagu interneta etxian. Lanen bat eitteko eta txateatzeko erabiltzen dot. Jende berrixa ezagutu eta hola...zenbat urte dittuan, nungua dan...eta holako gauzatxuk esateko. Kriston arrakasta daukat.



Irati Iñurrieta
12 urte

Etxian badaukat interneta. Gehixenbat txateatzeko eta ikastolako lanak egitteko erabiltzen dot. Normalian Kaixon txateatzen dot, euskeraz. Zeozertaz berba egitteko eta hola. Ligau leike baina zela dana erdi gizurra izaten dan ba...baina tira denbora kontua da.




Ander Heriz
13 urte

Nik erabiltzen dot txateatzeko eta neska polittak ikusteko; petardas.com eta beste orri batzuk. Kuadrilakuk ni baino gehixao ibiltzen dira..ez dot esango izenik baina..J.M.be ibiltzen da eta J.O.bebai....



KOMIKIA



Zein da argazkixan agertzen dan irakaslia?



DEITU 943 75 13 04 telefonora eta Eibarko Unzaga zinerako bi sarreraren zozketan satuko zara. (Zuk eta zure lagunak goxo goxo filma eder bat ikusteko aukera izango duzue)

Ikusten dozue sinosuke?**Egoitz Placencia
6 urte**

Bai ikusten dot, gauza gaiztuak itxen diitu. Behin zeguan kriston txixaguriakin eta gero txixa ein eta bueltan dator pitilina bistan dabela.

**Urko Azula
10 urte**

Batzuetan, abestixa badakit, "sinosuke da mutiko alai alai bihurria eta azkarra, ez da geldi egoten ez nau nau uzten bakean..."

**Ane Laderas
9 urte**

Batzuetan, abestixa erdiz purdiz dakitt. Behin erosketake eittera jua ziran ama eta sinosuke eta sinosukek harrapau zeban dana jan zeban.

**Marta Vidal
6 urte**

Bai ikusten dot, asko gustatzen jata. Egurdiko 13:30etan izaten da eta atzaldeko 19:15etan.

**Ikusi Makusi Zein Ikusi?**

Zein da alboko argazkian agertzen dan emakumia ?

Zein dan baldin badakizu,
DEITU

943 75 13 04 (Pil Pilean) telefonora
eta emon zure erantzuna. Emon zure izen abizen eta telefonua.

Asmatu ezkerro **liburu edar bat** irabaziko ahal izango dozu.

Aurreko aleko irabazlia: Janire Moreno

Erantzuna: Mariasun

Saria IRATXO dendan eskatu

Esaixo zu... (amodiozko, zorion agurrezko.... mezuak)

Garazi A. , Enara O. eta Alana B.: Zelako mutilak dittugun soraluzen zein ederrak diren. Agur pottolos!! Irune V. eta Nerea I.: mutil guapo eta majueneri muxu handi-handi bat. Eider P. eta Enara :muxu handi bat plaentxiko mutil guapueri.

Beñat A. eta Iosu E.: "Etxebarrik"(Run-runerrek) Txakarrari (Coyoteri) egur ederra eman sotxan.

(jende asko): Soraluzen "u" edo patinen pista bat egitea proposatzen dugu (jende asko) : Sacia dauan lekuan futbol selai bat jartzia.

Mireia, Ixone, Marta, Jose: Eskola eta patixua konpontzia oso kutrea da eta.

Pil Udalekuak 2.002**Berriz * Lizarra * Urdirutz****Aurrematrikula egiteko**

- Epea: apirilaren 8tik maiatzaren 3ra bitartean.
- Modua: irakasleei eman aurrematrikula-fitxa beteta.



Eh lagun! Ez izan zuhurra eta eman zazu izena Pil Udalekuetan! Pila bat ligitzeko!



Ba, bai. Primeran pasauko dozue. Sinosuke eta ni be bagoiaz. Bazatozte?

Berriz (Bizkaia)

Prezioa: 180euro(len) * 150euro (orain)

Uztailaren 2tik 14arte.

LH 3 eta 4ko ikasleak.

Kanpoko igerilekuak, mendi irteerak, jolasak, irteerak hondartzara, pilotaleku estalia...

**Lizarra (Nafarroa)**

Prezioa: 180euro(len) *150euro (orain)

Uztailaren 2tik 14 arte.

LH 5 eta 6ko ikasleak.

Treking irteerak, kanpoko igerilekuak, kirolak, jolasak, frontoia...

Urdirutz (Nafarroa)

Prezioa: 200euro(len) *170euro(orain)

Uztailaren 2tik 14 arte.

DBH 1 eta 2ko ikasleak.

- Bainatzeko ibaia, irteerak mendira, kirolak, jolasak...

Oharrak

*** Ume bakoitzak Udalaren 30 euroko dirulaguntza jasoko du.**

7 Herritako haurrak batera: Udaleku hauetan, Soraluekoekin batera, Elgoibar, Durango, Lasarte, Ordizia, Errenteria-Orereta eta Deustuko neska mutikoek ere partehartuko dute..

17 Begirale: Haurrak etengabe zaindu eta gidatzeko, 17 begirale izango dira Udaleku hauetan.

10 Hurreko begirale bat.

Antolatzaileak: Elgoibarko Izarra, Durangoko Berbaro, Lasarteko Ttakun, Ordiziako Hitzaro, Deustuko Berbaizu eta Soralueko Pil-pilean Euskara Elkarteetako Haur eta Gazte Sailak dira,

Udaletxeen eta Foru Aldundien laguntzarekin.

Plazak, mugatuak dira eta dauden plazak baino aurrematrikula gehiago jasoko balitz, maiatzaren 5ean, zozketa egingo litzateke aurrematrikulatu diren haur guztien artean (Pil-pileaneko bazkide direnen artean ezik, hauek lehentasuna izango dute eta matrikulatuak izaterako orduan.). Joatea egokitu zaienei telefono bitartez jakinaraziko zaie maiatzaren 17^a baino lehen.

Edozein argibidetarako dei egin Pil-pilean Kultura Elkartera, 943751304 edo 605706086 telefonora (Egoitz edo Ugaitz).



Iban Aranzabal
e-debagoienako telematika zuzendaria

Internetek goitik behera aldatuko ditte ohitura guztiak. Eta zuk ez dozula igarri bihar? oker zare!

Pentsauko dozu gaiñera urrindik datorren kontua dala, Soralezetarrongana ez dala berehalakuan helduko... ba... lehehengo eta behin politikuai gura dotset akulua sartu, ze gaurtik bertatik Industrialdeak cyberindustrialdeak izango dira, eta Soraluzen zer? Internetek komunikaziorako oztopo fisikuak gainditzeko ditte, eta esaterako, Soraluzen bada go makiña bat eta makiña horren jabia Ameriketako beste puntan, webcam baten languntziakin distantziara konponduta geratuko litzake makiña. Ez bidaiarik, ez hotel gasturik, ez denbora galtzerik...

“Soraluze birtuala” bultzatu bihar da

Enpresen-eta kontua dala bakarrik?. Ba ez! Zuen Udala bizkorra bada, herritarrengandik gertuago egotia bultzatu bihar leuke. Zenbat denbora galtzen dogu edozein tramite “tonto” egiten? edo osoko bilkurak zeiniek jarraitzen ditte? Ba etxetik jarraitzea gura dabenak ez dauka oztopo haundirik. Soraluzeko alkate jauna eta beste ordezkariaren arteko plenuak zuzen-zuzenian jarraitu leikez eta kostu haundi barik. Herrittarrak parte hartzea posible litzake, interakziñua haundituaz Udal-herritar artian...

Liburutegia gutxi erabiltzen dala? PocketPCak edo poltsikoko ordenagailuak garatu ahala etxetik kargatuko dogu liburu bat. Gero zati bat lagun bati bidali, orri osoak kopiatu... eta kantsatutakoan beste liburu bat kargatu. Ez dogu papelik gastatuko, liburutegira fisikoki joan beharrik ez da izango...

Eta Debagoienian moduan Debabarrenian be: Guk GoienaNet sortuko

dogu, Debagoienar guztiendako Interneterako sarrera naturala. GoienaNet-en lehenengoak izango gara notiziak ematen, esaterako: etxe bat erretzen badago gu han egongo gara ordenagailu portatila batekin eta eskuko telefono batekin. Zuzenian kontatuko dogu gertatzen diharduana. Gero, banda zabalakin, esatari bat edo elkarrizketatuen ahotsa gehituko dotsagu, eta baita bideo bat sartu be. Hori danoi ETB edo El Paisek baiño lehenau. Gertuko barrixak (baloratuena) bizkorren eta osatuen emongo dittugu GoienaNet atarixan. Eta aparte autobusen, farmazien... ordutegi eta telefonuak, zure posta-e eukitzeko posibilitatia, foroak, udalekin harreman birtuala, erosketak egiteko modua, zinera edo pelota partidurako sarrerria erosi, debagoienar guztion telefono gidia...

Eta euskeriari prestigioa emon!. Hedabidietako arduradunok eta Udalok lanera! Hurrengua BarrenaNet.

merkean. Gainera 72 urteko gizon hau pilotazalea da eta egunero sartzen da Asegarceren orrialdera. Han jarraitzen ditu gustoko dituen pilotarien gorabeherak: Goñik zer egin duen, nor fitxatu behar duen enpresak...Eta arratsaldeko txiketean, inork baino gehiago daki.

Internet familia osoarendako

Zortzi ordu lantegian diharduen aitak etxean ere erabiltzen du Internet. Posta elektronikoa erabiltzen du lagunekin, burtsa kontsultatzen du... Alaba txikiari joku bat jeitsi dio saretik eta jolas oso onak daude sarean doan.Seme nagusiagoak berriz, musika jaisten du, MP3 formatuak horretarako aukera ematen dio eta. Ingalaterrako SKA talde baten kantuak bajatu eta CD bat osatu du. Eta ama? amak euskara ikasten du internetari esker. Mikro txiki bat du,

Ez egon begira. Sartu, klikatu, edo Eusko Jaurlaritzatik proposatzen diguten moduan, konektatu zaitez.

hutsuneak betetzeko ariketak, nor-norinork guztia. Bankuko zenbakiak ere begiratzen ditu, kreditua zela doan eta abar...

Sarearen onurak

Sarea, merkea da, ez dago zertan patera gastatzen ibili beharrik eta horregatik, edozeinek du aukera on-line egoteko. Txipaseko indioek ondo ulertu dute hau eta beren pentsakera zabaltzeko ezinbesteko tresna izan da. Pil-pilean ere hamabostekari beharrean akaso, orainkari izango da hemendik gutxira, hau da, gertatu ahala emango ditu berririk, herriko gaiak eztabaidatzeko foro

bat eukitzeko posibilitatea izango du, inkestak egin ahal izango ditu... informazioa eta zerbitzu pila bat herritarren eskura jartzeko aukera izango du.

Sarearen onura garrantzitsuenak bizkortasuna da eta hori egoki erabiltzen asmatu ezker denondako izango da onuragarri. Baina ez egon zain Internet noiz etorriko. Internet gure etxeetan dago eta mundu oso bat daukazu zure eskura. Zure zaletasun bera dutenekin egingo dituzu trukeak, erosketak egin ahal izango dituzu, gura baduzu baita kartetan jokatu ere, edo musika entzun... Gura duzun guztia eta gehiago.

KZ guneetan ikasitakoa baliogarri geratuko da oso, edozeinendako pentasatutako teknologia da. Baina ez egon begira. Sartu, klikatu, edo Eusko Jaurlaritzatik proposatzen diguten moduan, konektatu zaitez.

Egoitz Unamuno eta Iban Aranzabal

Telefona 75 24 09

ARRANO

tabernia

“Giro euskalduna eta sanua”

ETORRI ETA GOZATU

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

etxera

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza Jabe Elkarteak Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk. 20590 Soraluze GIPUZKOA

Tlfona: 943 75 17 82

Futbola

“Taldea nagusia kinka larrian”

Soraluze futbol taldea osatzen duten hiru taldeak bi aste oporretan egon ondoren apirilaren 13,14-ko astebukaeran berriz ere ekingo diote txapelketari.

Taldea nagusia jaitsiera postuetan

Gabonak eta gero zuzendaritzak egindako fitxaketen ostean bazirudien taldeak burua altxatuko zuela baina izan zuen susperraldia ez da denek espero genuena izan eta taldeak jaitsiera postuetan jarraitzen du. Liga amaitzeko sei partidu falta zaizkie eta partidu hauetan taldeak barruan daukan dena eman beharko du lasaitasuna emango dioten puntuak lortu ahal izateko.

Jubenilak eta kadeteak egoera lasaian

Bi taldeak egoera onean aurkitzen dira eta liga amaiera lasaiagoa jokatuko dute. Jubenilek emaitza onen bidea aurkitu dute eta azken partiduetan garaipe oso garrantzitsuak lortu dituzte, azkena Intxurre taldearen aurka 3 eta 1. Garaipen hauen ondorioz, jubenilek jaitsieraren mamua urruntzea lortu dute eta sailkapenean 12. postuan daude. Kadeteak kopako txapelketan murgildurik aurkitzen dira eta txapelketa polita egiten dihardute. Ligilan 3. sailkatuta daude Beasain eta Urki-n atzetik.

Atletismoa

Txakarra galtzaile



Pronostiko guztien aurka Egoitzek irabazi zeban martxoaren 16an jokatuzen “lagunarteko” apostua. Karakatek Urkia Zelai arteko bidea elkarren ondoan egin zuten. Urkia Zelai bueltan oredea, Txakarraren despiste bat aprobetxatuz Etxebarrik beste bide bat hartu zuen eta Txakarrak bidez bidez jarraitu zuen Guenetxekoko bidezidorrerarte. Etxebarri zuzen zuzen jeitsi zen; Izarre, Zabaleta, Argatetik Plaza Barrirarte. Txakarrak Argateburu baserritik buelta, Argateko bidezidorreratik jarraitu zuen. Azkenean Etxebarrik jantzi zuen txapela eta txorixo korda eta Txakarrak baino 2minutu eta 10segundu aurretik sartu zuen hanka iturrian. Jende asko urreratu zen, 100 pertsona inguru, eta apustulariek bete zuten hasieratik bilatu zuten helburua; “herrixan apostu eta giro sano bat sortzia”. Tabernetan jarritako apostu kaxetan 80 euro inguru batu zituzten. Horietatik 40euro, apostuaren gastuak ordaintzeko (kartel, luntxa...) eta gainontzekoak, Jon Basauri eta Patxi Arizaga irabazleei banatuko zaizkie. Antolatzaile eta apostularien partez eskerrak Soraluzeko herritarrei eskeinitako arreta eta maitasunagatik.

Pelota

Hiru txapelketa jokoan

Zumarragako Txapelketa.

Aritz Laskurainek Julen Castellanos-ekin bikote osatuz Zumarragako Txapelketa irabazi du. Aritz eta Julen txapelketa irabazteko faborito ziren eta pronostikoak jarraituz finalera iristea lortu zuten. Finala Dominguez eta Errasti-ren aurka jokatu zuten eta 22 eta 9-ko emaitzaz txapela jaztea lortu zuten.

Deba Arroko Txapelketa.

Antton Alberdik Deba Arroko Txapelketako finala jokatuko du apirilaren 7-an Bergarako Udal Pilotalekuan. Antton –ek txapelketa ona jokatu du eta finalean azken hilabeteetan izan duen progresio handia erakusteko aukera bi-

kaina izango du.

Jon Arrieta finalerdietan kanporatua izan da. Txapelketa bi partidutara jokatzen da eta joaneko partidua Aritz Laskurainek jokatu zuen Jonen partez. Partidua txarra izan zen eta 22 eta 6 galdu zuen. Itzuleko partidua Jonek jokatu zuen eta partidu gogor baten ostean 22 eta 21 irabaztea lortu zuen. Garaipena lortu arren ez zuen finalerako txartelik lortu.

Zaramagako Txapelketa.

Unai Gisasola eta Ander Juaristi Zaramagako Txapelketako finalera iristea lortu zuten baina finalean ez zuten zorte handirik izan eta 16 eta 12-ko emaitzaz galdu zuten.

Xuban Catalan

Lonbide taberna

**Pintxoak
Ardoak, kafeak eta likoreak**

**Errabal kalea, 9
Tfnoa 943 75 14 07**



Lakuesta


Optika



Ikusmen arazoaren frogak eta argibideak

Argazkiak errebelatzen ditugu

**Santa Ana, 22 C- beheak
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 30 59**



Ferreteruaren itsasontziak

Jose Mari Igartua “ferreteruak” pazientzia haundia eskatzen duen zaletasuna hartu zuen jubilatuz zenean. Orain 8 urte izan zen hori eta gaur artean 9 itsasontzi egin ditu Gabolatsen daukan taillarrean. Momentu honetan Victory itsasontzia egiten ari da, bigarren aldiz. “Victory honetan hil zuan Nelson almirantia, Trafalgarko bataillan. Oin berriz egiten hasi naiz, lagun batek hola eskatu dosta eta. Hor dago Victory bukatuta. 1.500 ordu bihar izan nittuan berau egitteko. Gauza gaitzak jakaz. Batzuk pentsatzen juek puzzlia dala, pieza danak kaja baten datozelako, baiña puzzlianik ez jaukak ezebe. Hau brikolajia dok.”

Honelako itsasontzi bat egiteko zailtasunak ugari direla azaldu digu Igartuak. “102 kañoi jakaz honek, egurrak txortetan etortzen jatazik, gero honek zatittu, formak emon, ajustau eta... lan haundixa dok. Gaiñera pieza danak ez ditte ekartzen; igual ultzia falta, eskillaria... eta norberak egin bihar. Leku batzutan piezarixia saldu egiten juek, kañoiren bat falta bajak edo... baiña ez dituk errezak topatzen.”

Egin duen beste itsasontzietako bat H.M.S. Endeavour da, Scott kapitaiñarenena. “Honek bajakak beran istorixia. Scott hau eklipse bat ikustera jua eta 3 urte egin jittuan kanpua. Bueltan bera bakarrik etorri zuan, tripulaziño barek.”

“Etzoziko Ama” fragata konpontzeko ardura ere, Igartua berak hartu zuen. “100 bat ordu pasau neban berakin. Egur batzuk apurtuta zeuzkan eta killia be zitzak hartuta.” Ez zuen ez asko espero lan honekin hasi zenean itsasontzi barruan aurkitu zuena aurkitzea. “Aspiradoriakin bodegia garbitzen nabillela, ene! Papelezko rodillo bat sokatxo batekin lotuta; ze eite da? Etara dot



Jose Mari Igartua etxe ondoan daukan lantokitxoan.

Jose Mari Igartuak 9 itsasontzi egin ditu Gabolatsen daukan taillarrean.

Batzuk pentsatzen juek puzzlia dala, baiña puzzlianik ez jaukak ezebe. Hau brikolajia dok.”

eta hau bertantxe.” Hau da, euskaratuta, aurkitutako eskuizkribuak jartzen zue-na: “MCMXXXIko graziadun urtean eta abuztuaren 23an, Maria Llubia Agirre andreak Errege fragatako aparejudun itsasontzi bat eman zuen Plazentziako hi-

ribilduko Etzoziko amaren ermitara, zeinak izena daukan eta urre kolorezko hizkitan Etzoziko Ama, banderatzat dauzka ikur euskaldunak San Andresen asparekin. Itsasontzi hau, emailearen senarrak, Vicente Garcia de Egaña jaunak eraikia izan zen. Plazentzian, 1931ko abuztuaren 23an. Inork ezingo du itsasontzi hau besterenganatu, ez eta bere ikurrak aldatu. Maria Llubia ”


“Hau, Garcia de Egaña, eskola maisua zuan, bastante argixa. Killia ederra egin jotsan, eta detalle kurioso bat bebai: atze partian, popan, Soraluze ipiñitak jakan”. Igartuak jakinarazi digu, “Etzoziko ama” Anastasiarenean dagoela ikusgai, eta berak bere aldetik, itsasontziak egiten jarraituko duela,” pasiazia eta, ... jubilaueen gauzak dituk eta!!!”

Jon Basauri

Goizeko 6:30-etatik
aurrera zabalik!!

Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!

Errabal kalea, 15 Tfnoa 943 75 18 34



**Kiru
Muntaiak**

Blas Elizburu Kortabarria
Sukalde, enpotratu
eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Errekaldia, 30
Tfnoa 943 75 13 12
Eskuko tfnoa 670 05 18 20

Musika Eskola kontzertuetarako lokalik barik

Orain 3 bat urte Polikiroldegiko zine arteoa itxi zenetik, Musika Eskolak, abadearekin akordio batera heldu eta Elizan eskeini ditu bere kontzertuak. Akordioak, programaren zati bat musika erlijiosoz betetzea eskatzen zuen eta hori izan da azkenean ezadostasunak sortu eta Musika Eskola Eliza uztera behartu duen arrazoa. Ubane Uzin Musika Eskolako Zuzendaritzako kideak adierazi digunez, "Eliziak bere eskakizunak dauzka eta guk ez daukagu ezer esateko horren inguruan. Umiendako eragingarria da kontzertuak emotia eta Elizan jotia egokixa ez dala ikusi ostian, momentu honetan ez daukagu nun jo. Hori da arazua. Guk konponbide bat topatzia nahi dogu, ez polemikia eta zaratia etartzia.". Momentuz, aire librean



edo Udalaren tablatuarekin moldatu beharko omen dute baina aurrera begira, Udalarekin berba eginez arazoari konponbidea bilatzea derrigorrezkoa izango delakoan daude. Kontuak kontu, datorren apirilaren 14an egingo duten Udaberriko kontzertua Plaza Zaharrean eskeiniko dute.

Medikuak euskaraz jakin dezaten eskatuz



Martxoaren 23an, Plaentxiako Euskal Herrian Euskaraz-ek, propaganda banaketa bat egin zuen Plaza Zaharrean dagoen O sasun-Etxearen inguruetan. Ekintza hau, osasun-etxean gaur egun ematen den hizkuntza eskubideen urraketa salatu nahian "ANBULATORI-XUAN BE EUSKERAZ" lelopean egingo duten kanpainaren hasera moduan ulertu behar da. Kanpainan zehar egingo diren ekintzetan, oraingoan egin duten moduan, "medikuz mozturirik" azalduko direla jakinarazi zuten. Hurrengo ekintza, jendeak kasu honen inguruan dituen ardura nagusiak azaleratzea helburu duen inkesta bat egitea izango dela aurreratu ziguten. Hau dena jendeak zerbitzua euskaraz jasotzeko eskubidea izan zan dezan.

Fandango eta Arin arin ikastaroa

Urrats Dantza Taldeak eta Pil-pilean Kultura Elkarteak, fandango eta arin arin ikastaroa antolatu dute. Ikastaro hau datorren maiatzaren 11an Bergaran egingo den Erromeri Egunari begira antolatu da. Ekitaldi hau orainartean Oreretan antolatu izan bada ere, aurten lekuz aldatzea erabaki du Dantza Federazioak eta Bergaran izango dute zita Euskal Herriko dantzazale guztiak. Eskolak zapatuetan izango dira 11:00etatik 12:30etara bitartean, apirilaren 5ean hasi eta maiatzaren 4rarte. Animatu eta ikasi dantzan, primeran pasatuko dozu!

Gitarra ikastaroa



Pil-pilean Kultura Elkarteak, Udalaren laguntzarekin gitarra ikastaroa antolatu du. Dometx Uzin Sorluzetarra eta Olaia Ramos Bergararra izango dira ikastaroa ematearen arduradunak. Eskolak zapatuetan izango dira 16:00etatik 18:00etara, Ikastola Zaharrean eta 10 eurotako matrikula (bazkideek 5eurotako) ordaindu beharko da. Guztira 8 eskola izango dira eta Sorluzetarrei gitarra eta euskal kantuak ezagutzeko aukera ematea da helburua. Eskoletarako norberak lortu beharko du gitarra. Ikastaroa amaitutakoan afari bat antolatuko da partehartzaile guztien artean, ikasitakoa praktikan jartzeko. Ikastaroan izena emateko: 943 75 13 04 telefonora deitu behar da. Lehen eskola apirilaren 13an izango da.



CRUZ
ELECTRONICA

Mikel Cruz





ORDENADORE PERTSONALAK
INPRESORAK - INFORMATIKA

Santa Ana, 25
Tel.: 943 75 13 35 Faxa: 943 75 3019
Eskuko telefonoa: 630 35 82 95
20.590 SORALUZE

TXOKO KAFETEGIA



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22 behea, telf: 943751789

Agustin Cabezas

"Dana aldatu da, Aste Santua be ez da lehen zana"

Pil-pilean ezagutzen daberen eta aldizkarirako zeozer kontatzia nahiko leukien galdetuta, zera diñosku Agustinek barrez barrez: "Ni Soriakua naiz izetez, baina berrogeita bost urte hemen emondakua, euskalduna izango banitza moduan...Pil-pileaneko kontuak jarraitzen dittugu bai...ein ba nahi dittuzun galderak..."Eta holaxe ba Barixaku Santu goiz honetan, gizon jator honek oparitu doskun bere buruaren erretratua.

-Zaletasunak?

Ni jubilaia naiz eta pasian ibiltzia asko gustatzen jata.

-Koloria, lekua, erropia, animalia?

Urdina, Esozi, jertzia eta txakurra.

-Eguneko momenturik onena?

Atzaldeko pasia.

-Ezin dituzu jasan?

Zaratak, ointxe bada inguruan zaratia ugari.

-Bapo geratzeko modoko bazkaria?

Paella eder bat erateko ardaia eta gainian madarixa ero sagarra.

-Zeri ez zontsake ezetzik esango?

Zeri ez dakit baina zeini...andriari ez nontsake ezetzik esango...beti daka arra-zoia...

-Ze botere eukitzia gustauko litza-kizu?

Gaztiaua izateko boteria.

-Lehen...oin...

Bueno...zuritik beltzera...lehen Bandiak joten eban hemen plazan eta dantzan ibiltzen giñan ta eurixa eitten ebanian, Udaletxepian...nik uste dot gu oingo gazterixia baiño gehixao dibertitzen giñala.

-Aste Santua...

Dana aldatu da. Aste Santua be ez da lehen zana...sasoi baten, umiak eskutik hartu eta prosesiñuan ibiltzen ginan kalerik kale...oin berriz, nun dare.

-Noiz, nora, zeinekin, zertara?

Berdin da noiz, Donostiara egun pasa familixiak

-Bereziki goguan daukazun egun

Bertso Begiz

*Sorian jaio ta Plaentxian
bizimodua atera,
nostalgiazko begi kritikoz
begiratzan du atzera.
Egitian galdera,
gizon humila bera,
elkarrizketan erreza.
Erretratu hau izan dadila
andreandako sorpresa.*

*(Iparragirre abila dela)
Etxebarri*



Agustin Cabezas

haura?

Soldauzkara jua nintzanekua ez jata ahaztuko.

-Ederrena ala aberatsena?

Aberatsena? zetako. ...dudarik barik guapuena izetia.

-Udaberrixa?

Egualdi ona...izen be egualdi ona oin eitten dau udaberrixan, eta ez udan! Udan aukeran bero lartxo.

-Txistetxoren bat kontauko dosku-zu?

Bat edo beste badakiraz, baina ez noia hemen kontatzera, ez dia kontatzeko modokuak eta...Zeuk jakingo dozu bateron bat...

Holaxe amaittu da elkarrizketia...lau bost pauso emonda atzeraka begira diño... Aldizkarixan ur-tengo dot orduan...**Bai jauna!** Ez noia eze-

be esatera andriari..ta errebistia heltzen jakunian sorpresa emongo dotsat, zera esango dotsat: "ezagutzen dozu gizon hau? zure garai bateko nobixua da!

Ta barrez barrez buruakin baietz esanaz hor doia pozik Agustin !!! Amaitzeko aindu dotsaten txistia kontauko dot: Badoiaz jatetxe batera bazkaltzera bi lagun..eskaten dabe txuleta paria jateko...ta hor nun etaritzen dotsezen platerian kabidu ezindako txuleta eder eder bat eta beste xixtrin bat...

Da! golpe! ederrenari batek segiduan!

-Ta bestiak...Hik daukak aurpegixa hik!! Haundixenari golpe?

-Ez zera! Hik ze ingo euke ba

-Hi, nahikua juau ee! edukaziño pixkat be biha jok gizonak..nik txixixena hartuko neukek..

-Zeren zain hao ba...HOR DAUKAK!

Gururu

ELIZpE



h o r t z k l i n i k a

Elizburu, 3 behea
9 4 3 7 5 2 5 6 7
20590 Soraluze



EROSLE
Kontsumo kooperatiba

Tel.: 943 75 13 45

Kontu zaharrak

Ugarresia eta Arpasuak

Gure Deba ibaixan, Gabolatz eta Baltegieta kalien arteko zatixan, izan zan lursail bat presiaren eta zubixaren artian, ibaiko ura aldebertatik bialdu eta erdialdian "Ugarresia" esaten jakon uhartetxo bat sortu eragitten zebana. Inguru hau zumez beteta zeguan, eta sarritan jolasian egitako balixo izeten zozkun geure ume denporan. Ibaiko uhartetxo horretara juateko, ufalik ez zeguanian noski, presatik gertu zeguan ibai baztarretik edo arpasuetatik juaten ginan, Gabolazko eta Errekaldeko zubixak egitake zerenian eta Gilako zubixa herrixan bi aldien arteko komunikaziño bide bakarra zanian, ibai bazter batetik bestera pasatzeko modu horrek oindio bere lekuan jarraitzen daben arrasto zaharretatik.

Zer ziran arpasuak? Bere izenak aditzera emoten dau ibaixan erdialdian jarritako harri haundi batzuk zirala, zu-



bittik buelta pasau biharrian, batetik bestera salto eginaz pasatzeko zirala. Arpasuak herrixan hasieran eta bukaeraren zeren. Errekaldian, Maala esaten jakon lekuan eta Gabolatzan, ibaira jeiste-

ko oindiokan daguan bidian parian. Bi zubixak egin ziranian, ez da hainbeste denpora be, arpasuak erabiltziari laga jakon.

Etxazpi

Eukararen ajieri, sendabelarra



**EZ DOSTAZU IKUSI?
GAUR GOIZIAN
IKUSI DOTSUT!!!**



**EZ NOZU IKUSI ?
GAUR GOIZIAN
IKUSI ZAITTUT!!!**

IKUSI DOSTAZU...eta ikusi dotsut ZEOZER ezta? Orduan hartu goguan: Nik zuri ipurdixa ikusi dotsut baiña zu ikusi zaittut!!! Zuk neri ipurdixa ikusi dostazu baina zuk ni ikusi nozu Behin ero behin amamak holako hankasartzeren bat entzuten zebanian politxo esaten eban: Nere amari ikusi dotsazu esta mañana joan da kanpora eta en todavia ez da etorri!!! Nere amari ikusi dotsazu..oso gaizki zeguala erakusteko ...

Lehiaketa


Zein da argazkixan agertzen dan basarrixa?



Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke

**DEITTU BIZKOR
BIZKOR
943 75 13 04
Aurreko
aleko irabazlea:
Karmen
Ariznabarreta (deittu)**

Instalaciones Kalebarren S.L.



20590 SORALUZE TEL. / FAXA: 943 75 23 07 ESKUKO TEL.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92
48017 DEUSTU TEL.: 944 75 99 60 POSTA ELEKTRONIKOA: KALEBARREN@INICIA.ES

Etxabe harategia

Euskal txahalkia - Bildotsa

Merkatu plaza, 6-7 postuak
Tlfnoa: 943752375



Barra kargadore automatikoak
eta makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Mendiola Industrialdea 14-5

Tfnoa 943 75 18 91

Faxa 943 75 24 58

E - maila: etxehun@teletel.es

etxehun@euskaltel.net

20590 SORALUZE

Gipuzkoa



PASCUAL CHURRUGA, s.a.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461

E-mail: general@pascualchurruga.com

Errekalde 21

20590 SORALUZE


FER.

S.A. Industriak

Eskulanetarako tresnak

Industrialdea, 17 - 20590 Soraluze

Tlfonoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es



**Limpiezas
industriales**

Limpiezas

Trejo, S.L.

Rekalde, 30 behea

Tel.: 943 75 25 57

Faxa: 943 75 25 56

20.590 SORALUZE

Fandango eta Arin-arin Ikastaroa



Hori, hori! Aupa trikitixa!

IZENA EMOTEKO

NUN?:

AURRETIK 943 75 13 04 TELEFONORA DEITU
EDO BESTELA BERTARA AZALDU.

NOIZ?:

APIRILAREN 15A BAINO LEHEN. **(DOHAIN DA)**

ESKOLAK

Nun?:

EZOZIKO BIDEKO ERROTONDA AZPIKO
LOKALIAN.


Noiz:

APIRILAREN 6XAN, 13AN...ZAPATUETAN
11:00ETATIK 12:30ETARA

Urrats Dantza Taldia eta Pil-pilean Kultura Elkartia elkarlanian Soraluze kulturaz jazten

Gitarra Ikastaroa

MAILA ETA ADIN GUZTIETAKO JENDEARI ZUZENDUA
EUSKAL KANTUAK JOTZEN IKASTEKO



-LEKUA: IKASTOLA ZAHARRIAN.

-DATA: SAPATU ARRATSALDEETAN 4-ETATIK 6-ETARA. APirilAREN 13AN HASI ETA EKAINAK 1EAN AMAITU.

-MATRIKULA: BAZKIDEEK, 10 EURO

GAINONTZEKOEK, 15 EURO

-IRAKASLEAK: DOMENTX UZIN ETA OLAIA RAMOS.

- IZEN EMATEKO, DEITU 943751304 TELEFONO ZENBAKIRA ETA UTZI MEZUA.

BESTELA, EGUNEAN BERTAN ERE IZEN EMATEKO AUKERA EGONGO DA.



Peugeot 307. Ez da zenbaki bat bakarrik

2002 urteko autoa da Europan



Ze puntutaraino izan dezakezu konfidantza auto batekin? Punturik goreneneraino. Batu eta irabazi egin dugu. 6 Airbag (aurreko inteligente 2, alboko bi eta kortina moduko sabaiko bi, aurreko eta atzeko bidaiariendako) eta ABSez gainera, zure eskura jartzen ditugu segurtasuneko elementurik aurreratuenak:

EVA (larritasunezko frenatuendako laguntza), REF (frenatuaren banaketa elektronikoa), ECS (garondoko lesioen aurkako babes sistema), oiñ-jartzeko aktiboa,

Norabide habe atzeragarria eta ESP (orekaren kontrol dinamikoa). Xehetasun eta kontrol osoa.

ETORMOBIL

Otaola etorbidea 22

Tel.: 943 20 09 66

EIBAR

307 
PEUGEOT